


ARABA

Urteko Memoria

2015



Pertsonengandik gero eta hurbilago



Gurutze Gorria

© **Arabako Gurutze Gorria**

Dokumentu honetako edozein atal aipatua, kopiaua, beste hizkuntza batzuetara itzulia edo egokitua izan daiteke tokiko premiei erantzuteko Arabako Gurutze Gorriaren baimenik gabe, betiere iturria argi aipatzen bada.

Argitaratzailea:
Arabako Gurutze Gorria
Gaztelako Atea, 52
01007 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako emaila: alava@cuzroja.es



*Argitalpen honetarako Cyclus Print paper
% 100 birziklatua erabili da, FSC® Recycled
ziurtagiria du eta kolore zuri naturala dauka.*



Estibaliz Arnaiz López

Arabako Gurutze Gorriaren presidentea



Arabako Gurutze Gorriaren Gorria Araban gardentasun-politika baten alde egiten dugu apustu, Araban egiten dugun lan guztiaren inguruko informazioa herritarrei helaraztearen alde, alegia. 2015ean izan ditugun egoera, baliabide eta jardueren errepasoa egin eta azalpenak eman nahi ditugu, boluntarioak jardueran islatuta senti daitezten, enpresa eta pertsona bazkideen beren ekarpenak nola banatzen diren ikus dezaten, eta erakundeek berekin sinatu ditugun hitzarmenak nola bete diren balora dezaten, baita lortutako emaitzak ere.

Urtero ibilbide luzea egiten dugu kudeaketa, komunikazioa eta prestakuntza hobetzeko. Ilusio handia pizten diguten erronka berriei aurre egiten diegu profesional talde bikain bati eta ekonomikoki nahiz beren denbora eta ezagutzak ordainik eskatu gabe eskainiz laguntzen diguten milaka pertsonari esker.

Erakunde gisa, boluntarioak gure nortasunaren parte dira. Arrakasta lortzeko funtsezkoena da jakitea non garen erabilgarriagoak, baita jarduerarako prestakuntza eta baliabide egokiak izatea ere. Pertsonak hartzen ditugu oinarri, talde dinamikoak eta konprometituak sortuz, inor baztertuta edo alboratuta utzi gabe; izan ere, talde-lana da jende arrunta hain arrunt ez izatea lortzeko sekretua. Horregatik, Gurutze Gorriaren boluntarioek gure esker ona merezi dute. Gure oinarria dira. Gure babesa merezi dute.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Arabako Gurutze Gorriaren familia osatzen dugun guztioi: 9.690 bazkide, 830 boluntario eta 78 langile gara guztira. Baita babesten gaituzten Erakunde eta entitateei ere. Zuen ekarpenei eta laguntzari esker jarrai dezakegu egunero gure batzarretan lan egiten milaka pertsonaren bizi-baldintzak egunero-egunero hobetzeko.

Eskerrik asko, bihotzez.

IKUSPEGIA

Gurutze Gorriak, izaera boluntarioa duen eta gizartean oso errotuta dagoen erakunde humanitarioa den heinean, erantzun integralak emango dizkie pertsona kalteberei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, eta pertsona horien gaitasun indibidualak sendotuko ditu gizarte-testuinguruan.

EGINKIZUNA

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

GIZATASUNA • INPARTZIALTASUNA • NEUTRALTASUNA • INDEPENDENTZIA BOLUNTARIOTZA • BATASUNA • UNIBERTSALTASUNA

ARABAKO GURUTZE GORRIAREN HERRI BATZARRAK

Vitoria-Gasteiz

Gaztelako atea, 52 • 01007
Tlfn. 945 222 222
vitoria@cuzroja.es

Laudio

Avda. Zumalacárregui, 62 • 01400
Tlfn. 946 726 458
ludio@cuzroja.es

Kanpezu

Plaza Samuel Picaza, 1 • 01110
Tlfn. 945 415 112
campezo@cuzroja.es

Amurrio

C/ Bañuetaibar, s/n • 01470
Tlfn. 945 891 139
amurrio@cuzroja.es

Urduña

Gran Vía 3, bajo • 48460
Tlfn. 945 384 084
orduna@cuzroja.es

Oion

Eras de abajo, 1 • 01320
Tlfn. 945 622 660
oyon@cuzroja.es



ZER EGITEN DUGU?

06 • OSASUNA

08 • SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

10 • GIZARTE ESKU-HARTZEA

18 • ENPLEGUA

22 • PRESTAKUNTZA

26 • INGURUMENA

30 • GAZTERIAREN GURUTZE GORRIA

34 • NAZIOARTEKO ELKARLANA

NORK EGITEN DU?

36 • BOLUNTARIOTZA

40 • TOKIKO GARAPEN

NOLA EGITEN DUGU?

42 • BALIABIDEAK

44 • KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

NOLA FINANTZATZEN DA?

46 • FUNTSAK ESKURATZEA

ARABAKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

48 • KUDEAKETA EKONOMIKOA

KALITATEA

50 • KALITATE ZIURTAGIRIAK



OSASUNA

Bizitzeko ohitura eta estilo osasungarrien sustapena.

...

Gurutze Gorrian osasunaren sustapenaren ikuspegi proaktiboaren barruko ekintzak gauzatzen ditugu, ohitura osasungarriak sustatuz gaixotasunen eta istripuen prebentzioari lehentasuna emanez.

Osasunerako hezkuntza haurtzaroan eta gaztaroan

Ikasturtean zehar eskoletara joaten gara ohitura osasungarrien, substantzien kontsumoaren prebentzioaren, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen prebentzioaren, GIBaren eta elikaduraren inguruko informazioa eta trebakuntza eskaintzeko. Informazio gehiago lor dezakezu gure prebentzio-eremuan, **www.pre20.es** webgunean.

Istripuei aurrea hartzea

“Prebenitzea bizitzea da” leloarekin, kanpaina zehatzak, sasoikoak edo iraunkorrak egiten ditugu istripu gutxiago izatea sustatzeko: kolektibo zehatzetan, adineko pertsonen artean, umeen artean, denbora librean, udan eta, bereziki, modu seguru eta arduratsuan gidatzearen harira. Istripuak Europar Batasuneko heriotzen laugarren eragilea dira, eta elkarrekin besteak eta geure burua hezi ditzakegu istripuak ekiditeko.

Ohitura osasungarrien sustapena

Oro har biztanleriari zuzenduta ohitura osasungarriak sustatzeko kanpaina bat martxan jarri dugu. Urtean zehar, hainbat gai jorratu ditugu, eta gomendio batzuk proposatuko ditugu informazio hori eskuratzen duten pertsonen

osasun-maila hobetzeko. Kanpainaren izenburuak (Zaindu zeure burua, adibidez) ohitura kaltegarriak ekiditeko jarrera aktiboa izatera animatzen gaitu, osasuntsuagoak izatera, gure inguruko osasuna ere sustatzeko.

PROIEKTUAK

Osasuna etengabe:

Adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko egiten dugun proiektu bat da. Irizpide batzuen arabera hautatu diren pertsonen etxera bisitak egitean datza: adina (65 urtetik gora izatea), hipertentsioa izatea, etab.

Diagnostikoaren arabera, pertsonak bisita gehiago edo gutxiago izango ditu. Gainera, tentsioaren, pisuaren eta urratsen bionurketak egingo dira. Horretarako, podometro bat entregatzen zaie, eta gainera, aholkuak ematen zaizkie beren ohiturak alda ditzaten, osasuntsuagoak izan daitezen. Gure helburua da pertsonen ohitura osasungarriagoak bereganatuz beren bizi-kalitatea hobeto dezatela.



OSASUN JARRAITURAKO PLANAREN DATUEN LABURPENA



12 erabiltzaile (5 emakume eta 7 gizon)



5 hipertentso (etxeko bisitak astero)
7 ez-hipertentso (etxeko bisitak hilero)



Azkenean tratamendu medikoa jasotzea ekarri duten
3 hipertentsio-alarma detektatu eta prozesatu dira.



5 boluntario 2015ean, proiektu honen erabiltzaileei arreta emateko.



Boluntarioentzako **2** prestakuntza eta topaketa **1**egin ziren boluntarioen eta erabiltzaileen artean.

GIBa-Hiesa:

Hiesa birus batek eragiten du: GIBak. GIBak sistema immunologikoa ahultzen du, eta gaixotasunen aurrean ahulagoak izan gaitzela eragiten du. Birusa detektatzeko modu bakarra GIBaren proba egitea da.

Gurutze Gorria Araban, GIBaren proba azkarrak listuaren bitartez egiteko arreta eskaintzen dugu, eta probek % 97ko eraginkortasuna dute. Beti dira anonimoak eta doakoak. Probak egiten direnean ordutegia eta eguna betetzea eskatzen da bakarrik.

Gurutze Gorriaren Tokiko Batzarrean egiten dira, Gasteizen, astelehenetan, 16:00etatik 18:00etatik. 2015ean, 7 pertsona joan ziren GIBaren proba azkarra egitera.

GIBaren Nazioarteko Eguna zela eta, kalean informazioa emateko eta probak egiteko hainbat gune jarri ziren. Eki-menak harrera ona izan zuen herritarren artean. Guztira 25

pertsonari eman zitzaizen arreta eta GIBaren 15 proba azkar egin ziren.

Gainera, osasun-arloko boluntarioak GIBari buruz sentsibilizatzeko prestakuntza-saio bat egin zen transmititzeko arriskua duten gaixotasunei buruz.

Osasun sustatzailea:

Lehen Laguntzetako trebakuntzari esker, pertsonari diskriminaziorik gabe biziak salbatzeko aukera ematen zaie. Hon-damendien ostean salbatzen diren bizi guztietatik tokiko biztanleriak ehuneko 90 salbatzen duela kontuan hartuz. Gaikuntza hori lehenago esku hartu duten edo geroago esku hartuko duten guztientzat da, hala sorosle profesionalentzat nola profanoentzat.

Lehen laguntzen Nazioarteko egunean 2 jarduera-egun gauzatu genituen kalean, probintzia-plazan eta Gamarrako udal instalazioetan, eta horrela, 2.000 pertsonari eman genien arreta guztira.



SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

Erantzun azkarra eta biktimen beharretara egokitua, larrialdi edo krisi egoeretan.

...

LARRIALDIETARAKO OSASUN-GARRAIOKO SAREA (LOGS)

Larrialdietarako Osasun-garraioko Sarea da paziente batek berehalako osasun-arreta behar izatea eragiten duen eta haren bizitza arriskuan dagoela edo osasunerako kalte konponezinak jasan ditzakeela esan nahi duen egoera kliniko batean paziente hori lekualdatzea eta larrialdi-egoera horri modurik onenean erantzuteko gauza den osasun-zentro batera eramatea.

Zerbitzu hau abuztuaren 31ra arte egon zen erabilgarri gasteiztarrentzat eguneko ordu guztietan, Oinarrizko Bizi Euskarriko anbulantzia batekin, Gasteizko tokiko batzarrean.

DATUAK:

- 2015ean **2.900** pertsonari eman zitzairen arreta irailera arte.

LURREKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Prebentzio Zerbitzuek prebentzio- eta osasun-estaldura ematen diete pertsona askoren parte-hartzea duten ekitaldiei (ezbeharren bat gertatzeko arriskua areagotzen delako). Kiroi- eta kultura-jardueren estaldura lehenetsi ohi da, esate baterako hauena: txirringarritza-lasterketak, txapelketak eta probak, kontzertuak, kontzentrazioak...

DATUAK:

- 2015ean 251 prebentzio-zerbitzu eskaini ziren guztira.
- Eskaera horiei erantzuteko, Oinarrizko Bizi Euskarriko (OBE) 5 anbulantzia dauzkagu Gasteizen, OBE anbulantzia 1 Laudion eta OBE anbulantzia 1 Amurrian.

LARRIALDIETAN BEREHALAKO ERANTZUNA EMATEKO TALDEA (LBEET)

Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldeek (LBEET) hondamendietan eta larrialdietan erantzuteko gaitasuna indartzen dute. Talde hauek estatuko edozein tokitan esku hartzeko prestakuntza espezializatua duten boluntarioek osatzen dute, lan-metodologia homogeneoa dute, eta beste larrialdi-talde eta -erakunde batzuekin koordinatuta daude.

- > **LAGUNTZA PSIKOSOZIALA:** Azpitalde hau osatzen duten boluntarioak kategoria hauetakoak dira: psikologia, laguntza-sorosleak eta erizaintza. Azpitalde hau kaltetutako pertsonen behar psikosozialak baloratzeaz arduratzen da, haien sufrimendua arintzeko, trastorno psikopatologikoak agertzea prebenitzeko, kaltetutako pertsonen normaltasunera lehenbailehen itzultzen laguntzeko dauden baliabideen berri emateko, eta osasun mentaleko sarera edo gizarte-zerbitzuetara bideratu behar diren muturreko kasuak detektatzen saiatzeko. Araban, kasuen % 95 mobilizatzen du SOS Deiak-ek.

DATUAK:

- 2015ean 4 esku-hartzetarako mobilizatu ziren, eta 4 pertsonari eman zitzairen arreta zuzenean.
- 8 praktika gauzatu ziren.
- Gurutze Gorritik 3 prestakuntza gauzatu dira eta hainbat prestakuntza-ekintza eman dizkigu Arkauteko akademiak, adibidez klimatologia, bilaketa txakurrekin, erreskatea amildegietan, 4x4 ibilgailuak gidatzea, erreskatea helikopteroarekin, GPSa...



- > **BILAKETA ETA SALBAMENDUA LURREAN:** Desagertutako edo/eta galdutako pertsonak aurkitzeko ekintzetan laguntzen du, lurreko (eremu naturalak, etab.) bilaketa-operazioak planifikatuz eta gauzatuz eta biktimei behar duten osasun-laguntza eskainiz.

Salbamendu-ekintzetan parte hartzen du, biktimak istripua gertatu den tokitik baldintzarik seguruenetan garraiatuz eta biktimak laguntza-zentro batera eraman ahal izateko haien beharretarako ebakuazio-bide egokiraino beharrezkoa den osasun-arreta emanez.

DATUAK:

- 2015ean 27 esku-hartze egin ziren, eta 53 pertsonari eman zitzairen arreta zuzenean.
- Lur orotako ibilgailu 2 dauzkagu Araban.

- > **ALDI BATERAKO ATERPEA:** Aldi Baterako Aterpeko LBEETaren helburua da arropa, elikagaiak eta higie-ne-elementuak hornitu eta banatzea, baita aldi baterako aterpe-eremuak antolatu eta instalatzea ere, eta Esku-hartze Psikosozialeko LBEETarekin batera lan egitea, egokia denean.

Larrialdi batek batzuetan jendeak bere etxea edo herria utzi behar izatea eragin dezake. Senideen edo/eta lagunen etxeetan edo hoteletan geratu ezin badira, LBEETA aktibatzen da.

Administrazioak (beharrezkoa bada eta ezarritako gutxieneko baldintzak betez) leku erabilgarri bat ziurtatzen duenean, aldi baterako aterpeko LBEETA martxan jarri ahalko da eta 150 pertsonari eman ahalko die arreta ohatila eramangarriekin eta tapakiekin, baita higie-ne pertsonalerako kit-ekin eta behar-beharrezko edariekin ere, behar hori eragiten duen larrialdiren bat gertatzen bada, eta gainera, jarduera garatzeko aktibazio- eta koordinazio-prozesuak kudeatu ahalko ditu.

Talde hau urte bukaeran jarri zen martxan eta ez da mobilizatu 2015ean.



GIZARTE ESKU-HARTZEA

Egoerarik zaugarrienean dauden pertsonentzako laguntza.

...

ADINEKO PERTSONEN PROGRAMA_

Etxez etxeko laguntza osagarria

Adineko pertsonak isolatuta geratzea ekiditeko jarduera batzuk dira; zehazki, haien mugikortasuna eta inguruarekiko kontaktua sustatzen dira. Jarduera hau ez da mugatzen haien etxera. Alegia, kasuan kasuko ezaugarrien eta inguruabarren arabera posible bada, adineko pertsonak komunitatean parte har dezala eta beste pertsona batzuekin harremanak izan ditzala sustatzen da, elkarri laguntzea eta belaunaldi arteko kontaktua errazteko.

Banakako jardueren hartzaileak hainbat arrazoiren ondorioz bakarrik bizi diren pertsonak dira, edo eguneroko zereginetarako norbaiten laguntza behar dutenak.

Talde-jarduerak, aldiz, adineko pertsonak gizartean eta komunitatean aktiboki parte har dezatela dute helburu.


Horretarako, mota haueko jarduerak gauzatzen dira:

- Akonpainamenduak.
- Gestioak egitea.
- Laguntza-produktuak lagatzea.
- Belaunaldi arteko topaketa sustatzen duten ekintzak eta aisialdiko eta denbora libreko jarduerak.
- Prestakuntza-jarduerak.
- Adineko pertsonen papera nabarmentzeko ekintzak, biztanleria oro har sentsibilizatzeko eta ikuspegi positiboa eta estigmatik gabea sustatzeko.

- Etxeko konponketatxoak.
- Jarraipen-agendak.

DATUAK:

130 pertsona guztira, 53 gizonezkoak eta 77 emakumezkoak.



130

Pertsona guztira

53

Gizonezkoak



77

Emakumezkoak



JARRAIPEN-DEIAK	
Hilabeteak	Dei kopurua
Urtarrila	540
Otsaila	564
Martxoa	563
Apirila	567
Maiatza	620
Ekaina	810
Uztaila	611
Abuztua	261
Iraila	653
Urria	470
Azaroa	592
Abendua	359
GUZTIRA	6.610

> **Guztira: 699 akonpainamendu**

Akonpainamendu motak:

- Bisita/proba medikoak: 585
- Kutxetako/bankuetako gestioak: 6
- Erakunde publikoetara laguntzea: 2
- Menpekotasuna eskatzea Aldundian: 9
- Menpekotasuna baloratzea etxebizitzan: 4
- Dokumentazioa eskatzea, biltzea, prestatzea: 27
- Beste gestio batzuk: 66

> **Telefono bidezko gogorazpenak: 638**

Adineko pertsonentzako sare soziala:
Enréd@te

Enréd@te proiektuaren helburua da adineko pertsonen eta beren inguruaren eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea, gizartean parte har dezatela sustatzeko eta



bakardadeari aurre egiteko oinarri gisa, baita belaunaldien arteko harremanak hobetzeko ere, hala familia barruan nola kanpoan.

Adineko pertsonak beren etxean ahal beste denbora gera daitezten laguntzen du, eta haien garapen soziala beren zehar hartze-prozesuan beren bizi-kalitatea hobetzeko erabakigarria izan dadila sustatzen du.

Eta hori arazoari kontzientzia-erantzun, gaitasunaren, lan-kidetzaren eta parte-hartzearen bitartez heltzeko lau esku-hartze lerroren bitartez gauzatzen da:

- Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak.
- Gaitasunak bereganatzeko jarduerak.
- Adineko pertsonari aisialdiko, parte hartzeko eta beren harreman pertsonalak mantentzeko edo/eta hobetzeko eremuetara joaten laguntzeko jarduerak.
- Adineko pertsonen parte-hartze eta aktibazio jarduerak.



Respiro. Menpeko pertsonen arduratu behar duten familientzako aldi baterako laguntza

Proiektu honek menpeko pertsonen arduratu behar duten familiei babes espezializatua ematen die, menpekotasunak familian duen eragina arintzeko eta gaixoari ematen dizkion laguntza eta zaintza optimizatzeko.

Proiektuak zaindariari atsedenaldira ematen dio, eta behar dituen informazioa eta laguntza psikoemotionala eskaintzen dizkio, indibidualki nahiz familia barruan edo familia artean.

Etxeko telelaguntza

Proiektu hau adineko pertsonentzat da, batik bat bakarrik bizi direnentzat edo antzeko egoeran dauden beste batzuekin daudentzat, edo ezgaitasunagatik, gizarte-isolamenduagatik, zahartasunagatik, gaixo egoteagatik edo bestelako arrisku psikosozial edo/eta fisikoengatik langile espezializatuek aldi batez edo behin betiko arreta jarraitua ematea behar dutenentzat.

Zerbitzu honek ahalbidetzen duena da beren etxetik telefonoz eta baliabide informatikoen bitartez berehala harremanetan jartzea gau eta eguneko zerbitzua duen laguntza-zentral batekin.

Alarmen arretaz gain, akonpainamendua eta babesa ere eskaintzen ditu, proiektu honen euskarri nagusia diren boluntarioen bitartez. Boluntarioen esku-hartzearekin, adineko pertsonak isolatuta geratzea ekiditen da eta haien mugikortasuna eta inguruarekiko kontaktua sustatzen dira, eta, era berean, arrisku-egoera potentzialak ekiditen dira. Boluntarioek entzun egiten diete, babesa ematen diete eta esku-hartzearen erreferente komunitario bihurtzen dira. Elementu honek Gurutze Gorria beste erakunde batzuetatik bereizten du.

Gainera, adineko pertsonaren senideei babesa eta segurtasuna eskaintzen dizkie etxeko arrisku posibleen aurrean.

Garraio egokitua

Mugikortasun-arazoak dituztela eta garraio publikoa erabili ezin duten pertsonen etxetik irtetea ahalbidetzen die, beren eguneroko zereginak edo noizbehinkako gestioak egiteko, adibidez, errehabilitazio zentroetara joateko lekualdaketak, edo zentro okupazionalak joateko, eguneko zentroetara joateko, etab. Halaber, medikuarenera joateko, aisialdi-jardueretarako eta beste hainbat gauzatarako noizbehinkako lekualdaketak errazten dira.

2015ean, Arabako lurraldeko hamabi bideetan **73.812 lekualdaketa egin ziren (joan-etorriak) Eguneko Arretarako Landa Zentroetara, 201 pertsonarekin guztira.**

Aldi horretan, zerbitzu osagarri guztiak barne hartzen dituen Denbora Libreko ibilbidearekin, **797 zerbitzu** eman ziren guztira, eta horietako 24ri akonpainamendu zerbitzua gehitu zitzaion Gurutze Gorriaren boluntarioen eskutik.

Programa hau emateko, **15 langile** (ordezkapenak barne) eta **Gurutze Gorriko 24 boluntario izan ziren.**

Baliabide materialei dagokienez, **19 ibilgailu** izan ziren eta **606.946 km** egin ziren guztira.



2015ean zehar honako Eguneko Arretako Landa Zentro hauetan esku hartu zen:

- Artziniega, Kanpezu eta Eltziego (1998tik)
- Dulantzi, Amurrio, Iruña Oka eta Agurain (1999tik)
- Zambrana eta Zuia (2000tik)
- Gaubea (2002tik)
- Harana (2003tik)
- Erriberabeitia (2004tik)
- Zigoitia (2005etik)
- Asparrena (2006tik)
- Arraia-Maeztu (2008tik)
- Aiara (2009tik)
- Aramaio (2011tik)
- Bilar (2012tik)
- Lagran (2014an ireki zen)

EZINTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN PROGRAMA _____

Laguntza-produktuak

Laguntza-produktuak aldi batez lagatzean datza, hau da, urritasunen bat duten eta eskatzen duten pertsona guztiei beren autonomia funtzionala areagotzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko beharrezko laguntza-produktuak dohainik lagatzen zaizkie aldi batez. Gainera, hitzaldiak eta saioak egiten dira merkatuan dauden laguntza-produktuei eta horien erabilerari buruz.

Produktu horiek Gurutze Gorriaren bulegoetan mailegatu dira, 6 hilabeterako gehienez.

DATUAK:

> 2015. URTEA:

- 243 PERTSONARI EMAN ZAIE ARRETA
- 316 MAILEGU

316 maileguetatik:

- 55 eskorga
- 75 makulu
- 181 gurpil-aulki
- 5 bestelakoak (ohe artikulatuak, bastoiak, etab.)

BESTE URTE BATZUK	
2014	
Pertsonari eman zitzaien arreta	Prestazioak
219	53
2013	
Pertsonari eman zitzaien arreta	Prestazioak
154	165
2012	
Pertsonari eman zitzaien arreta	Prestazioak
128	139

13

GIZARTE ZAILTASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEN PROGRAMA _____

Telelaguntza mugikorra genero-indarke-riaren biktimentzat

Zerbitzu hau telefono mugikorraren eta telekokapena- ren (GSMa eta GPSa) erabilpenean oinarrituta dago. Babes-agindu bat duten biktimei berehalako eta urrutiko arreta eskaintzen die arreta-zentrotik, dauden tokian daudela ere, eguneko ordu guztietan eta urteko egun guztietan erantzun azkarra emateko.



IMMIGRANTEEN PROGRAMA _____

Immigranteen harrera integrala

Programa hau immigranteen, asilo-eskatzaileen eta nazioarteko babespean dauden eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste pertsona batzuen lehenengo etapa gisa planteatzen da, oinarrizko behar sozio-sanitariorik premiazko eta berehalakoenei erantzuteko.

Gure gizartean integratzen joateko lehengo tresnak eskaintzen dira, hala nola informazioa, orientazioa, babesa eta oinarrizko baliabideak, hori guztia dibertsitatea errespetatuz eta migrazioaren kultura arteko ikuspegiarekin.

Immigranteak, gure lurraldera iristen denean, ez du ezagutzen nolakoa den integratuko den gizartearen errealitatea, eta bereziki, ez daki zer-nolako arau-esparrutan moldatu beharko duen (eta askotan, ulertezina da kolektibo honentzat). Horregatik, dokumentazioa erregulatu arteko ibilbide osoan laguntza ematen zaio, besteak beste ekintza judizialak has-teko eta doako justiziaz baliatzeko administrazio-errekur-tsoa egiteko eta Abokatuen Elkargora jotzeko.

Lege-aholkularitza dohainik ematen dugu immigranteei orientazioa eskaintzeko beren behar juridikoei buruz, atzeritarren zuzenbidean eta asilo-eskubidean kontzentratuta (hala nola, familia bateratzeari buruz, espainiar nazionalitate lortzeari buruz, Batasuneko araubidetik Batasunetik kanpokora pasatzeari buruz eta lan-kontratu berriak izapidetzeari buruz).

Jarduerak administrazio publikoekin eta inguruko erakundeekin koordinatuz gauzatzen dira, erlazionatutako arriskuak murrizteko eta prebenitzeko konponbideak bilatzeko. Era berean, gure ahaleginen zati bat iritzi publikoa sentsibilizatzerantz bideratzen dugu, estereotipo eta aurreiritzien kontra borrokatzeko, hainbat balio bultzatuz, esate baterako tolerantzia, elkarrekiko begirunea, diskriminaziorik eza eta kultura arteko bizikidetzaren konstruktiboa, pertsona hauen egoera bereziaren ondoriozko beharrak azpimarratuz.

DATUAK:

> 2015 URTEA

- **892** pertsonari eman zaie arreta
- **402** emakumezko 
- **490** gizonezko 
- **3.006** kontsulta guztira

ERREFUXIATUEN PROGRAMA _____

Errefuxiatuak hartu eta gizarteratzea

Programa integral honek hainbat zerbitzu barne hartzen ditu, bakoitza bere helburuekin, eta osotara, nazioarteko babesa eskatzen edo/eta lortu duten pertsonak, herrigabeak, aldi baterako babes-erregimenean daudenak eta bestelako babes subsidiarioko estatutuen menpe daudenak hartu eta gizarteratzea lortzea eta finkatzea dute helburu. Bada, autonomia nahikoa eta bertako herritarren baldintza beretan lortu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak ematen dira.





PRESOEN PROGRAMA _____

Gizartearen mesederako lan egitea

Kartzelatzea ekiditeko neurri alternatibo bat da, heziketa-helburua du, eta era berean, gizartearentzako erabilgarritzat eta probetxuzkotzat jotzen da, eta gizarte erantzunkidetasuna lortzen da erakundeen eta komunitatearen artean.

Gurutze Gorriak urtero sinatzen du lankidetzaz hitzarmen bat Espetxeetako Idazkaritza Nagusiarekin. Hitzarmen horren harira, gizartearen mesederako lan (GML) egiteko plaza asko eskaintzen ditugu hainbat gizarte-programatan (adineko pertsonak, immigranteak, haurrak, gazteak, etab.) eta administrazio- edo mantentze-lanetan.

Horri guztiari esker, herritarrak sentsibilizatu ahal ditugu espetxeak ez diren beste neurri batzuk izatearen garrantziari buruz; izan ere, batetik, askatasuna kentzea dakarten zigorraren eragin desozializatzaileak saihesten dira, eta bestetik, nolabait, kondenatuak gizarteari eragin dion kaltea gizartearen mesederako lanen bitartez konpon dezake.

Esku-hartze osoa bideratzen da oinarrizko bi ildotara: Estatuko Harrera Sarearen parte izatea, sare hori osatzea eta harekin lankidetzan aritzea.

Onuradunei inguru berrian moldatzen eta behar besteko autonomia lortzen laguntzen dieten baliabideak eta programak martxan jartzea.

Programak zerbitzu hauek barne hartzen ditu, besteak beste:

- Gizarte esku-hartzea.
- Aldi baterako harrera.
- Laguntza ekonomikoak.
- Laguntza psikologikoa.
- Laguntza legala eta juridikoa.
- Interpretazioa eta itzulpena.
- Lehen harrera.

Programa hau Gurutze Gorriaren beste proiektu batzuekin bateratzen da, eta immigranteak, asilo-eskatzzaileak eta nazioarteko babespean dauden eta zaurgarritasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk gizarteratzea, laneratzea eta hezkuntza- eta kultura-inklusioa erraztea ditu helburu.

DATUAK:

> 2015 URTEA

- 39 pertsona (23 gizon eta 16 emakume)
- Lanegunak: **2.465** (lanegun bakoitza bi ordu dira)

> 2014. URTEA

- 48 pertsona (31 gizon eta 17 emakume)
- Lanegunak: **2.617**



MUTURREKO ZAURGARRITA-SUN-EGOERAN DAUDEN PERTSO-NEN PROGRAMA

Etxegabeen arreta integrala (EAI)

Programa honen helburua etxegabeen eguneroko arriskuak behar bezala kudeatzea eta kalteak gutxitzea da, batik bat.

EAlen lantaldeak gizarte-langileek, laguntzaile teknikoek eta jarduera honen inguruko prestakuntza zehatza duten boluntarioek osatzen dituzte.

Urte osoan zehar, astero, astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan, pertsona hauek lo egiteko erabili ohi dituzten tokiak joaten dira.

Mikrouhin labe bat, tapakiak, higiene pertsonalerako produktuak, salda eta ogitartekoak dituen ibilgailu batekin, pertsona ezagunengana eta arreta hau jaso ohi dutenengana joaten dira, baita toki posible berrietara ere. Boluntarioen zeregina da hirian dauden baliabideen berri ematea ezagutzen ez dituzten pertsonen, ogitarteko bat eta edari bero bat eskaintzea (kafea edo salda) eta tartetxo batez pertsona horiei entzutea. Bestalde, tapakia, barruko arropa, galtzerdiak edo higiene pertsonalerako produktuak ematen zaizkie behar dituztenei. Ekimen honen helburua da pertsona horien babesgabetasun-egoera arintzen eta jasangarriago egiten laguntzea.

Neguko hilabetetan Gasteizko Udalarekin parte hartzen dugu Negu Ostatu Emateko Baliabidearekin (NOEB)

DATUAK:

- 35 pertsonak parte hartzen dute proiektu honetan, eta urtean 768 bat orduko lankidetzak ematen dute.
- 2015ean, 64 pertsonari eman zitzaizkien arreta Gasteizen.

BEHARTSUEI LAGUNTZEKO FUNTS EUROPARRAREN ELIKAGAI-KANPAINA

Programa nazional honek elikagaiak banatzen ditu behar-tsuenen artean. Behartsuei Laguntzeko Funts Europarrak (BLFE) programa honen % 85 finantzatu du eta Estatuko Administrazio Orokorraren aurrekontuarekin finantzatu da gainerako % 15a. Besteak beste, azokan elikagaiak erosten, biltegiatze-zentroei hornitzean eta banaketa-erakunde-arten banatzean datza. Gurutze Gorrian, banaketa-erakunde baimenduen artean banatzen ditugu, haiek dohainik bana ditzaten pertsonarik behar-tsuenen artean, eta era berean, akonpainamendu neurriak eskaintzen dira, hurbileko gizarte-baliabideen inguruko informazioa emanez.

DATUAK:

2014. URTEA		
Faseak	Erabiltzaile	Kilo banatuta
1. Fasea	3.307	27.085,80
2. Fasea	3.307	60.717,20
GUZTIRA		87.803 Kilo

2015. URTEA		
Faseak	Erabiltzaile	Kilo banatuta
1. Fasea	2.210	61.056,424
2. Fasea	2.210	70.859,104
3. Fasea	1.874	45.635,760
GUZTIRA		177.552 Kilo

“ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO” DEIAREN INGURUKO ZERBITZUAK

Gizarteratzea pobrezian eta gizarte-zaugarritasun egoeran dauden edo egoera horretan erortzeko arriskupean dauden pertsonak beren inguruko bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzeko beharrezkoak diren aukera eta baliabide gehiago izatea ziurtatzen duen prozesu bat da. Era berean, pertsona horiek berekin lotutako erabakietan parte hartzeko gai izan behar dute, baita beren oinarrizko eskubideak baliatzeko ere.

- Pobrezia erlatiboa jasatea.
- Gabezia materiala jasatea.
- Familietan langabezia osoa jasatea (familia kide guztiak langabezian izatea).


“**Gabezia materialaren tasak**” gabeziak gure gizartean duen eragina ulertzen laguntzen digu. Pertsona edo familia batek gabezia materiala jasaten du bere etxean **bederatz** puntu hauetako hiru, behintzat, falta badira:

- Ezustekoei erantzuteko gaitasuna.
- Urtero astebeteko oporraldia etxetik kanpo igarotzea ordaintzeko gaitasuna.
- Azken 12 hilabeteen ordainketa-atzerapenak izatea (hipotekaren edo alokairuaren ordainketetan, zerbitzu publikoen fakturretan, erosketa atzeratuetan edo beste mailegu batzuenetan).
- Gutxienez bi egunez behin haragia, oilaskoa edo arraina (edo baliokideak, begetarianoen kasuan) jateko gaitasuna.
- Etxebizitza tenperatura egokian izan ahal izatea neguan, baita osasungarritasun-baldintza egokietan ere, itoginik gabe, hormetan, lurzoruetan, sabaietan eta zimenduetan hezegunerik izan gabe, lurzorua, leihoen markoak eta ateak ez egotea ustelduta, gelaren batean argi natural gutxi ez izatea, etxebizitzak bainuontzia edo dutxa izatea, baita komuna eta ur korrontea ere.

- Garbigailu bat edukitzea.
- Koloretako telebista bat, telefono bat (mugikorra barne) edo autoa izatea.

Gurutze Gorritik, behar beste baliabide ez dituzten pertsona eta familien zaugarritasuna murrizten laguntzen dugu, haien oinarrizko higie eta elikadura beharrei erantzuten eta hainbat hornidura (ura, elektrizitatea, gasa eta telefonoa) ordaintzen lagunduz.

DATUAK:



> 2012. URTEA (iraila-abendua)

- Arreta jaso duten pertsonak: 66
- Familiak: 11
- Ondasunak entregatzea: 148

> 2013. URTEA

- Arreta jaso duten pertsonak: 582
- Familiak: 80
- Ondasunak entregatzea: 2.185

> 2014. URTEA

- Arreta jaso duten pertsonak: 453
- Familiak: 254
- Ondasunak entregatzea: 1.967

> 2015. URTEA

- Arreta jaso duten pertsonak: 464
- Familiak: 436
- Ondasunak entregatzea: 1.698



ENPLEGUA

Enplegua eskuratzea, gizarteratzeko tresna gisa.

...

Krisi sozioekonomikoak enplegua prekarizatzea eta lan-baldintzak gogorragoak izan daitezela eragin du. Horrek bereziki eragin die gizarte-zailtasunak dituzten pertsonari, eta horregatik, Gurutze Gorriaren enplegu-planak pertsona hauek enplegu bat berdintasun-baldintzetan lortu eta mantendu ahal izatea lortzeko egiten du lan.

Ibilbidearen barruan, jarduerak gauzatzen dira 3 ekintza-lekurren bitartez:

- **Orientazioa:** banakakoa eta taldekakoa, eta jarraipen bat ezartzea enplegarritasunaren birlakaeraren jarraipena egiteko.
- **Prestakuntza:** enplegu-planak prestakuntza lortzeko aukera ematen du hainbat sektoretako ikastaroen bitartez, eta laneratze handiagoa sustatzeko praktikekin.

- **Artekaritza:** inguruko enpresak baztertuta geratzeko arriskupean dauden pertsonen enplegarritasunaren eta gizarteratzearen alde inplikatzeko ditugu.

2015ean, 1.896 pertsonari eman genien arreta helburu hauekin:

- Enplegarritasuna sustatu eta indartzea, beren trebeziak eta gaitasunak hedatuz, enpleguari dagokionez baldintza hobetan kokatzeko.
- Enplegua bilatzeko autonomia sustatzea.
- Laneratzea sustatzea, lan- eta gizarte-inguru inklusibo bat lortzeko.



- Sexuaren, adinaren eta jatorriaren ondorioz enplegu bat lortzeko oztopoak murrizten diren inguru bat sortzen laguntzea.

Proiektuak:

> ENPLEGUA LORTZEKO NEURRI ZEHATZAK

2015ean, 1.349 pertsona pasatu ziren informazio- eta aholkularitza-zerbitzutik lana bilatzeko, eta han, inguruko baliabideen gaineko informazioa ematen da, eta gainera, lana bilatzeko esparru bat ere eskaintzen da, teknologia berriak erabiltzeko aukerarekin. Era berean, ematen dira aholkularitza eta enplegua bilatzeko tresnak eskaintzeko saioak.

> IBILBIDE HORIZONTALAK GAZTEEKIN ENPRESAN

Proiektu honetan 130 gazteri eman zitzaizen arreta. 18 eta 20 urte artekoak ziren, kualifikazio gutxiak, eta langabezia zeuden, ia prestakuntzarik eta gaitasun profesionalik gabe eta lan-esperientzia txikiarekin edo esperientziarik gabe, egungo krisi-testuinguruan gizar-te-zaurgarritasun egoeran dauden gazteak ziren.

> LAN EGINEZ IKASTEA

Programa honetan 20 gaztek parte hartzen dute, eta merkataritza- eta biltegiatze-gaikuntza profesionalerako ikastaro bat egiten da, lanekoak ez diren praktikekin, zaurgarritasun-egoera larrian dauden, prestakuntza gutxi duten, diru-sarrera gutxi dituzten eta kide guztiak langabezia dituzten 30 urtetik beherako gazteentzat.

> LAN-MERKATUTIK URRUNDUTA DAUDEN EMAKUMEAK ENPLEGUARI BEGIRA AKTIBO BIHURTzea ETA LAGUNTzea

Lan-esperientzia txikia edo eza duten emakumeentzako proiektu honetan, emakume askok ez dute inolako prestakuntzarik, guraso bakarrak dira eta ez dute zehaztuta beren helburu profesionala. 2015ean, 65 emakume esku hartu zuten.

> INTERLABORA

Proiektu honetan 345 pertsonak parte hartu zuten, lan-gaitasunak eta gaitasun-pertsonalak galdu dituzten edo ez dituzten eta lana bilatu nahi duten immigra- teentzat da, eta askotan, ez dituzte oso zehaztuta izaten beren helburu profesionalak.

> GIZARATERATZE-ESPARRUAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN


Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetara jotzen duten eta beren egoera hobetu behar duten arren oinarrizko gizarte-tre-beziak ez dituzten pertsonentzat da. Horregatik guz-tiatatik, esku-hartze zabala eta integrala behar dute, hainbat alderdi indartuz (autokontzeptua, balorizazio pertsonala, oinarrizko gaitasun eta trebetasun pertsonal-ak), gizarteratzea errazteko eta beren jabeakuntza sustatzen duten aldaketak egon daitezen, erabakiak hartzeko gaitasuna indar dezaten, baita beren komu- nikazio-gaitasunak ere, etab. Aldaketa hori lortzeko, la- guntza etengabea beharrezkoa da. Esku-hartze honen helburu nagusia da pertsonak gizartera hurbil daitezela, gizartearen parte senti daitezela, parte har dezatela eta autonomoak izan daitezela. Gizarteratze-beharrei erantzuteko esparruak inklusio-ibilbide baten parte dira, ibilbide pertsonalizatua da, eta bertan, norbanako bakoitza da bere prozesuaren arduraduna.



Lanaratzeko-tasa %36 izan da.

INKLUSIO-ESPARRUETAKO PRESTAKUNTZA-ORDUAK:

KUADRILLAK	PRESTAKUNTZA-ORDUAK GUZTIRA
Zuia	688
Guardia eta Arabar Errioxa	1.485
GUZTIRA	2.173



INKLUSIO-ESPARRUEN DATUAK

191 lagunek parte hartu dute esparruetan

%61,25 emakumezkoak izan dira

%38,74 gizonezkoak izan dira

%68,58 25 eta 45 urte arteko pertsonak izan dira

%26,1ek 45 urte baino gehiago dituzte

%5,23k 25 urte baino gutxiago dituzte





PRESTAKUNTZA

Kalitatezko prestakuntza motibatzaile, aktibo, parte-hartzaile eta praktikoa baten alde

...

”

Gurutze Gorriak ikastaroak eta kalitatezko prestakuntza eskaintzen ditu larrialdien eta pertsonen arretan erreferentziazko erakunde gisa duen esperientzian oinarrituz.

22

Ikasiz, aurrerapenak lor ditzakegu nahi duguna eta behar duguna lortzeko. Ideiak eta itxaropenak egia bihurtzea esan nahi du. Gurutze Gorrian, prestakuntza gizabanakoen, erakundeen, enpresen eta gizartearen gaitasunak indartzen eta areagotzen dituen tresna gisa ikusten da. Horrek, pertsonen kasuan, aukera-berdintasuna ematea eta bizitza- eta garapen-aukerak zabaltzea esan nahi du. Erakundeen eta enpresen kasuan, prozesuak hobetzeko ateak irekitzen ditu, baita beren giza baliabideak hobetzeko eta berrikuntzarako ere.

Aldaketa handiko etapa batean gaude. Garai berri honetan, aldaketa eboluzio-ereduaren oinarritzko alderdi definitzailea da. Horregatik, ikaskuntza askoz baliotsuagoa da pertsonen moldatzeko aukera izateko oinarritzko baliabide gisa. Ikasiz, erakunde eta enprekin batera, gure egoera hobezakegu eta balioa eskain dezakegu gizarte inklusiboagoa sustatzen laguntzeko. Hori guztia ingurua, gizarte-eredua, gure lurraldeetako baldintza sozioekonomikoak eta bertan sortzen diren beharrak aintzat hartuz.

Gurutze Gorrian, Gizarte Ikerketaren bitartez, eta Berrikuntza ikuspegi batekin, lurraldeko baldintzei eta testuinguruari, erakundeei eta, jakina, pertsonen erantzuteko Prestakuntza Plan bat eskaintzen dugu.

Nori ematen dio prestakuntza Gurutze Gorriak?

Bere boluntarioei eta langileei —iaz 70 ikastarorekin baino gehiagorekin—, erabakigarriak direlako prozesuan eta emaitzetan, aldaketa bultzatzen duen erakundea izanik. Egoera zaugarrian dauden pertsonen, indartu daitezten eta beren egoerari arrakasta izateko bermearekin aurre egiteko gaitasun handiagoa izan dezaten. Iaz 260 ikastaro egin ziren parte-hartzearen, gizarte-inklusioren eta enpleguaren inguruan.

Herritarrei, oro har, gaitasun berriak lor ditzaten, hobekuntza pertsonalak lortu nahi badituzte edo enplegua lortzeko gaitasun handiagoak izan nahi badituzte. 2015ean 438 pertsona trebatu ziren gizartearen, osasunaren, gizarte-sustapenaren eta larrialdien arloetan, eta Lanbideren ziurtapena lortu zuten arlo soziosanitarioan, erakunde sozialetan.




Gazteei, Henry Dunant denbora libreko Eskolaren bitartez. Eusko Jaurlaritzak ofizialki aintzatesten du eta Lanbidek ziurtatu egin du, haur eta gazteentzat denbora libreko jarduerak zuzendu eta koordinatzeko eta jarduera horiek dinamizatzeko ziurtagiri profesionalak emateko.

Ikaskuntza-beharrak dituzten eta beren parte diren pertsonen gaitasun profesionala eta balio soziala eman nahi dieten erakunde eta enpresei, baita araudi berrietara egokitu behar dutenei ere.

Laburbilduz, gizarte osoari, izan ere, Gurutze Gorriak prestakuntza zuzenagoa eta berdintasunezkoagoa, solidarioagoa eta barne-hartzaileagoa izan dadila bultzatu nahi du, prestakuntza hori hobetuz eta bere balioak indartuz.

ESKU-HARTZEKO PRESTAKUNTZA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
203	235	438
PARTE HARTZEKO ETA GIZARTE-INKLUSIORAKO PRESTAKUNTZA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
1.385	2.643	4.028
HERRITARRENTZAKO PRESTAKUNTZA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
470	531	1.001
GARAPEN INSTITUZIONALERAKO PRESTAKUNTZA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
155	240	395
GUZTIRA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
2.213	3.649	5.862



% 7,5

Esku-hartzerako

438 ikasle
37 ikastaro
491 ordu

% 68,7

Parte-hartzerako eta Gizarte-inklusioko

4.028 ikasle
553 ikastaro
10.593 ordu

% 6,7

Garapen instituzionalerako

395 ikasle
36 ikastaro
171 ordu

% 17

Herritarrentzako prestakuntza


Enpresei emandako ikastaroak:
23, 407 ikasle, 173 ordu.
Gainerakoak herritarrentzat.

1.001 ikasle
68 ikastaro
1.881 ordu

GUZTIRA 5.862 ikasle 694 ikastaro 13.136 ordu




URTEAN IZANDAKO IKASTAROAK



24

URTEAN IZANDAKO IKASLEAK







INGURUMEN-PLANA ARABA 2015

Lurrak mundu-mailako krisi bat du aurrean: ekonomia- eta gizarte-garapena ingurumenean Lurrarentzat jasangaitza den zama bat ezartzen ari da; gizabanako guzti-guztion erantzukizuna da gizarte- eta ingurumen-desorekei konponbide bideragarriak aurkitzea, modu arduratsuagoan jokatzuz eta gure beharrak ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izanez asez.

Horregatik, Gurutze Gorriaren konpromisoa da ingurumenaren dimentsioa zeharka sartzea bere arlo guztietan, zaurgarritasuna murrizteko eta gizabanakoen bizi-kalitatea hobetzeko.

Zehazki, 2015ean zehar, Ingurumen Planetik, inguruaren gaineko sentsibilizazio-, hobekuntza- eta kontserbazio-jarduerak egin ditugu, inguruan eta, ondorioz, pertsonengan eragin positiboa izateko.

Aipatzekoa da jarduera nagusietako bat izan dela gurekin lan egiten duten pertsonen informazioa ematea hainbat alderdiren inguruko jardunbiderik iraunkorreni buruz, hala nola alderdi hauetan: energia-eraginkortasuna, uraren kalitatea eta osasunarekin harreman zuzena dutenak.

Ingurumen-hezkuntzaren eta -sentsibilizazioaren arloan, azpimarratzekoak dira uraren eta ingurumenaren nazioarteko egunen ospakizunak.

- > **Uraren Nazioarteko Eguna** ospatzeko, hainbat jarduera antolatu genituen Gasteizko, Laudioko eta Amurrioko Tokiko Batzarretan, herritar guztiei oro har zuzenduta nahiz umeei zuzenduta, uraren eta Garapen Iraunkorren arteko harremanari buruz sentsibilizatzeko.
- > **Udako Solstizioaren Festa Aresketamendin.** 2015eko ekainaren 20an, Amurrioko Udalak antolatuta eta

Gurutze Gorriaren boluntarioekin lankidetzan, jolas-jarduera bat antolatu genuen parke tematiko batean energia berriztagarriei buruz. Batik bat umeei zuzendutako jokoen bitartez, ingurumen-sentsibilizazioa landu genuen. "Ingurune Naturalaren alde Mugituz" Proiektuan jorratu den gaiaren harira, uraren gaia, uraren kudeaketa egokia eta, zehazki, etxeko isurketen prebentzioa landu ziren.

- > **Ingurumenaren Nazioarteko Eguna.** Aipatu ditugun hiru arlo horietan, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Ekainaren 5aren inguruan, hainbat sentsibilizazio-saio gauzatu genituen une hartan Gurutze Gorriaren proiektuetan parte hartzen zuten guztiekin:

- **Ikasleak.**
- **Gizarte- eta enplegu-proiektuen erabiltzaileak.**
- **GGGren proiektuetan parte hartzen zuten umeak.**
- **Gurutze Gorriaren hainbat proiektuen boluntariorzak.**

Baita herritarrekin ere, oro har, gizarte-sareen bitartez, batik bat.

Saioretan gauzatutako lanak eta zabalduetako mezuak efemeridearen edizio honetan landuko zen "kontsumo arduratsua" gaiari buruzkoak ziren. Partaideei eskatu genien beren kontsumo-jarraibideei buruz hausnartzeko, ingurumen- eta gizarte-eraginarekin erlazionatzen genituen bitartean, guztia modu arduratsuan kontsumitzen duten eta ohiko jokabide okerrak identifikatzen dituzten pertsonak lortzeko.



- > **“Ingurune Naturalaren alde Mugituz”** proiektuak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Biodibertsitate Fundazioaren lankidetzan izan du.

Proiektua bi esparru geografiko bereizi osatzen dituzten hiru tokitan gauzatu zen: batetik, Gasteizko Tokiko Batzarrean (Gasteiz probintzia-hiriburua da eta Zadorra ibaiaren inguruan biztanleria-dentsitate eta populazio azpimarragarriak dituen gunek bakarra da), eta bestetik, Amurrión eta Laudion (Nerbioi ibaiak zeharkatzen ditu, eta ibaiak haran handia sortzen du Kantauri itsasora bidean, Arabaren ipar-ekialdean). Helburua da herritarrak ibaien egoerari buruz sentsibilizatzea, udal jabari hidraulikoa babesteko, uretako ekosistemak narriatzea ekiditeko eta beren egoera hobetzeko.

Proiektua funtsean jatorri kultural anitza eta etnia anitza dutenen kolektibo horri (umeei) zuzenduta dago; jatorri hori dutelako, askotariko ohiturak dituzte ingurumen-jokabideei dagokienez.

Jatorri kultural anitz eta etnia anitz izate hori kontuan hartuz, ingurunearen ezagutzaren ikuspuntutik ere lan egin da,

biodibertsitatearen aberastasuna eta biodibertsitatea mantentzea beharrezkoa dela identifikatzeko jokoan bitartez.

Horregatik, eta Gazteen Gurutze Gorriarekin batera, udaleku irekiak egiten ditugu ingurumen-sentsibilizaziorako jarduerak lantzeko, hainbat alderditan kontzentratuz, hala nola isurtzeen prebentzioan, “hondakinen” balorizazioan, haien jatorriko herrialdeetako uraren errealitatearen nondik norakoetan, etab.

Udalekuak uztailean egin ziren. Bertan, gosari osasungarri batzuk egiteko aprobeixatu genuen, hartzen zituzten elikagai desberdinek dituzten ur-beharrak, haien jatorria, elikagai bakoitza garraiatzearen eragina, hautatzeko modua eta hondakinak kudeatzeko modua analizatuz.

Udalekuen bukaeran, Urbasako mendilerroko abentura-parke batera txango bat egin genuen, eta han, “uraren sekretua” izenburuko jarduera bat landu genuen, eta horrela, umeei uraren zikloa leize-zulo baten bitartez ezagutu zuten.

Azkenik, Ingurumen-kalitateko programaren barruan, azpimarratzekoa da hainbat ildo landu direla:



- Gurutze Gorria Arabaren jardueren ingurumen-alderdien analisia, bereziki azpiegituretan eta proiektu adierazgarrietan kontzentratuta.
- Eraginik adierazgarrienak identifikatzea kontsumoen jarraipenaren bitartez.
- Barneko sentsibilizazio-plana arazo horiei oihartzuna emateko eta pertsona inplikatuak kontzientziatzeko.
- Erosketa-prozesuetan klausula iraunkorrak sartzea, produktuen edo/eta zerbitzuen erosketaren eraginak murrizteko.

28



19 jarduera

704 partaide

10 boluntario (6 gizon eta 4 emakume)

600 ale banatu dira (informazio-materiala)



Gazteen Gurutze Gorria



GAZTEEN GURUTZE GORRIA


Haur eta gazteentzako jarduketa programak, hezkuntzaren ikuspuntutik.

...

Gazteen Gurutze Gorria (GGG) Gurutze Gorriaren gazteen atala da eta 8 eta 30 urte arteko ume eta gazteek osatzen dute. GGGk ekintza eraldatzaile bat gauzatzea du helburu, eta haurrei eta gazteei eta haien sozializazio-eragileei

(eskola, familia, elkarte-mugimenduak, komunikabideak, etab.) zuzenduta dago, haien garapen osoa eta autonomia pertsonala sustatzen du eta haien hurbileko inguruan eragina du.

PARTE-HARTZAILEAK



Gazteen Gurutze Gorria erakundeko 51 boluntarioren ekintzari esker, 10.633 esku-hartze gauzatu ahal izan dira 8.190 partaiderekin.

”

2015ean, Gazteen Gurutze Gorrikoaren (GGG) Hauteskunde Orokorrak egin ziren. Prozesu parte-hartzaile hartan, GGG osatzen duten pertsonak beren gobernu-organismoak hautatzeko aukera izan zuten, baita datozen 4 urteotarako lan-ildoak ere. Prozesu horri jarraiki, gobernu-organoen % 100 berritu dira aurkeztutako hautagaitzei zuzeneko botoa emanez.



ESKU-HARTZEA

Ospitaletako haurrak - CiberCaixa

Harreman pertsonalen eta jolasen bitartez, ospitaleratuta egoteak adingabeengan eta haien familiengan duen eragina arintzen dugu. 2015ean, 321 jarduera gauzatu ditugu guztira Txagorritxu ospitaleko pediatria atalean.

Eskola-arrakastaren sustapena.

Eragin positiboa dugu umeen eskola-prozesuan, haiekin arlo pertsonaleko eta haien inguruko faktoreetan lan egiten baitugu, beren eskola-errendimendua eta -arrakasta hobetzen laguntzeko.

DATUAK:

2015ean hiru herritan egin da: Amurrión, Laudion eta Gasteizen. Hona hemen guztizko datuak:

- 114 ibilbide pertsonalizatu.
- Eskola-laguntzako 6.400 esku-hartze.
- 5.795 askari.
- 207 aisialdi-jarduera.
- Materiala entregatzeko 243 jarduera.

Jostailu hezigarria

Gizarte-zailtasunak dituzten haurren eta gazteen bizi-kalitatea hobetzen dugu, jolasaren bitartez garapen pertsonalerako gaitasunak sustatuz.

DATUAK:

- 7 sentsibilizazio-ekintza, 361 hartzaileekin.
- 548 jostailu hezigarri-sorta entregatu dira.

SENTSIBILIZAZIOA

Bere esku-hartze hezigarrien bitartez, GGGk gizartea eta gizabanakoak eraldatu nahi ditu ikaskuntza-prozesuak sustatuz, hala maila indibidualean nola kolektiboan. Horregatik, bere oinarri nagusietako bat hainbat arlotako informazioa eta sentsibilizazioa da.

Arabako Gazteen Gurutze Goriarentzat arlo garrantzitsu bat generoaren ikuspegia eta baterako hezkuntza da; horren harira, genero-indarkeriaren prebentzioan lan egiten du, baita baterako hezkuntza ez-sexistaren arloan ere.



DATUAK:

- Genero-indarkeria: 82 jarduera Arabako Lurralde Historikoko hogeitik gora heziketa-zentrotan, 2.010 gazteren parte-hartzearekin
- Sentsibilizazioa eta baterako hezkuntza ez-sexista: 265 pertsonako esku-hartzearekin.

2015ean EISIE proiektua martxan jarri zen (hau da, Larraldietako Sentsibilizazio eta Informazio Taldeak). Unitate hori Gazteen Gurutze Gorriak erakundeko 9 boluntariok osatzen dute, eta lurralde nazionalen eta nazioartean izan diren larraldietan, hondamendietan, hondamendi naturaletan edo gizarte-asaldurako egoeretan haurren eta gazteen beharrei erantzutean espezializatuta daude. Ildo horretatik, hiru ekintza-lerro jarraitzen dituzte: Sentsibilizazioa, Informazioa eta Esku-hartzea Larraldietan. Aldi honetan zehar, errefuxiatuen eskubideen inguruko sentsibilizazio-jarduera bat egin da beste erakunde batzuekin eta Lankidetzatza Sailarekin batera.

DATUAK:

2015ean zehar, beste 11 informazio- eta sentsibilizazio-ekintza gauzatu genituen, eta ekintza horietan, 652 pertsona sentsibilizatu genituen arlo hauen inguruan:

- GIBaren/Hiesaren inguruko hezkuntza eta prebentzioa.
- Kultura arteko hezkuntza, Dibertsitatea gure aukerarik onena proiektuarekin.
- Ingurumen-hezkuntza.
- Giza eskubideak.

PARTE-HARTZEA

PINEO. Haurren eta gazteen parte-hartzea

Umeei aisiaren eta denbora librearen bitartez haur eta gazteentzako partaidetza-esparru bat eskaintzeko aukera ematen digu.

DATUAK:

2015ean, 8 eta 13 urte arteko 54 partaiderekin lan egin zuen 11 monitoreko taldea izan genuen.

GGGren programen edukiak jorrazteko 310 esku-hartze gauzatu ziren, hala nola osasunerako hezkuntza eta sustapena, generoaren ikuspuntua eta baterako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza eta iraunkortasuna, garapenerako hezkuntza eta nazioarteko lankidetzatza eta gizarte esku-hartzea eta inklusioa. Hori hainbat hezkuntza-estrategiaren bitartez egin zen, esate baterako, jokoen, animazioaren, kirol-jardueren, tailerren, hitzaldien, irteeren eta txangoen bidez.

Aisia eta Denbora Librea

Hainbat jolas- eta hezkuntza-jardueraren bitartez, balioak eta gizarte-kontzientzia erakusten ditugu. Gasteizen eta Amurrioren egiten dira.

Gasteizen, uztailean hamabost eguneko Udalekuak antolatu ziren. Egun horietan, 25 umek hainbat jolas-jarduerarekin gozatu eta konpartitu zuten eta gai ugari jorraztu zituzten, besteak beste ingurumena eta baterako hezkuntza.

Amurrioko Batzarrak, berriz, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak antolatzen ditu bertako Udal Igerilekueko bisitariarentzat. Bestalde, GGGk Gabonetan Amurrioko Udaletxean antolatzen den Gabonetako Haur-parkean parte hartzen du.

Boluntario gazteen parte-hartzea

Boluntario guztien parte-hartzea dinamizatzeko eta sustatzeko hainbat jarduera eta topaketa antolatzen ditugu eta beste askotan parte hartzen dugu; izan ere, beren parte-hartzearen bitartez, bakearen, berdintasunaren eta errespetuaren kultura bereganatzen eta sustatzen dute.



- Trebatuz topaketa.
- Actúa topaketa.
- Lidergotza foroak.
- Udako eskola.

Denbora Libreko Eskolaren helburua da gazteen sektorea sustatzea, eta horretarako, denbora libreaan gizarte-hezkuntza proiektuetan aktiboki eta eraginkortasunez esku hartzea ahalbidetzen dieten ezagutzak eta gaitasunak ematen dizkie eta, aldi berean, esperientziak trukatzeko esparru bat sortzen da.

PRESTAKUNTZA

Gazteen Gurutze Gorriko erakundeak kalitatezko esku-hartzearen alde egiten du apustu, eta horregatik, garrantzi berezia ematen dio jardueren programazioan, betearazpenean eta ebaluazioan egunero-egunero esku hartzen duten boluntarioen prestakuntzari.

DATUAK

2015ean GGGren ibilbideko 6 prestakuntza zehatz egin ziren, 90 boluntarioen parte-hartzearekin. Bestalde, herritar guztiei zuzendutako 3 ikastaro egin ziren, eta 45 ikasle izan ziren guztira.



PROIEKTUEN DATUAK

Proiektuak	Boluntarioak (gizonezkoak)	Boluntarioak (emakumezkoak)	Parte-hartzaileak
Indarkeriaren gaineko sentsibilizazioa eta prebentzioa		3	2.020
Baterako hezkuntza eta hezkuntza Ez-sexista		4	265
GIBaren/Hiesaren inguruko hezkuntza eta prebentzioa	1		120
LSIT	4	5	250
Dibertsitatea gure aukerarik onena	1	3	262
Ingurumenari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa	3		20
Haur ospitaleratuen arreta	2	9	531
Hezteko jostailuak	2	6	909
Umeen eskola-arrakastaren sustapena	6	18	155
Cibercaixas	2	9	850
Aisia eta Denbora Librea	7	14	2.887
Boluntario gazteen parte-hartzea eta sustapena erakundeetan	3	6	
PINEO	4	6	54



GARAPENERAKO LANKIDETZA

Konpromiso humanitarioaren proiektzioa

...

”

Gure Garapenerako Hezkuntzaren ereduaren helburua da mundu osoko herritarrak Giza Eskubideek zuzendutako ikuspegi batetik heztea, Printzipioak eta Balioak transmititzen dituzten, herriko elkartasuna sustatzen duten eta Giza Eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa zabaltzen dituzten mekanismo bilaka daitezzen.

34

GARAPENERAKO ETA SENTSIBILIZAZIORAKO HEZKUNTZA

Sentsibilizazio-ekintza bi gauzatu dira urte luzez:

“Gutunak Filipinetatik: berriro hasiz” erakusketa

“Gutunak Filipinetatik: berriro hasiz” erakusketak erakusten du tifoia nolako eraginak izan zituen herrialdean, hau da, herritarren egoera nolakoa den eta hondamendiaren ostean nola itzuli diren beren onera, bizitzeko baliabideak berreskura ditzaten epe ertain eta luzera gauzatu diren proiektuak, etab. Hori guztia hainbat argazkirekin eta Gurutze Gorriak tokian bertan gauzatu dituen proiektuekin erlazionatutako beste material batzuekin erakusten da.

- > **Lugar:** Boulevard Merkataritza-gunea.
- > **Egunak:** 11 de marzo al 20 de Marzo.
- > **Bisitari-kopurua:** 640 pertsona.

Itsasoz edo lehorrez? Besarkada bat beti

2015eko azaroaren 22an, Gasteizko Udalak Umeen Eskubi-deen eguna zela-eta antolatu zituen jardueren artean, lankidetzaren arloko hainbat erakundek, hala nola Gurutze Gorriak eta Gasteizko Udaleko Lankidetzaz-zerbitzuak, “Itsasoz edo lehorrez? Besarkada bat beti” jarduera antolatu zuten. Jarduera horren helburua izan zen gasteiztarrek pertsonen babes-eskubideari buruz sentsibilizatzea. 250 lagunek parte hartu zuten osotara, eta adin txikiko kideak dituzten familiak izan ziren, batik bat.



LAGUNTZA HUMANITARIOA ETA LARRIALDIAK _____

Hondamendien eta gatazka armatuen biktimei laguntza humanitarioa eta medikazioa ematea da gure helburuetako bat, egoerarik ahulenean dauden pertsonen beharrei, gure gaitasunei eta erakundearengandik espero denari erantzunez.



GARAPENERAKO LANKIDETZA _____

Gurutze Gorrian pertsonei eta haien talde eta komunitateei beren beharren eta interesen arabera bizitza bete-betea izatea eta haien gaitasunak eta autonomia sustatzea errazteko giza garapenerako ikuspuntutik erantzun integralak ematean sinesten dugu. **Humanitatearen Printzipioa da Gurutze Gorriak Giza Eskubideekin duen konpromisoaren adierazpena, eta konpromiso hori, gaur egun, eduki ekonomiko, sozial eta kulturalerako eskubideak defendatzeko ekintzetan islatzen da. Alderdi eraldatzailea eta hurbiltasun-ikuspegia dituzten ekintzak babestuz egiten dugu lan.**

PROIEKTUAK

LAGUNTZA HUMANITARIOA ETA LARRIALDIAK

SIRIAKO ETA PALESTINAKO EMAKUME ERREFUXIATUEK ETA HARRERA-HERRIALDEETAKO EMAKUME ZAURGARRIEK LAGUNTZA OBSTETRIKOA ETA GINEKOLOGIKOA ESKURATZEA (**Libano**)

Arabako Larrialdi Funtsa

SIRIAKO ERREFUXIATUEI ETA SAIDAKO HARRERAKO HERRITARREI MEDIKU-GIZARTE ZERBITZUAK ESKURATZEA ERRAZTEA (**Lurralde palestinarrek**)

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

GARAPENERAKO LANKIDETZA

MASBATEN HONDAMENDI NATURALEN AURREAN EGOERA ZAURGARRIAGOAN DAUDEN HERRIEN GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO BALDINTZAK HOBETZEA (**Filipinak**)

Nazioarteko Lankidetzaren Funtsa

KILIMANJAROKO ESKUALDEKO 1.200 NEKAZARI TXIKIREN NEKAZARITZA-GARAPEN IRAUNKORRA INDARTZEKO ETA ELIKADURA-SUBIRANOTASUNA LORTZEKO BALDINTZAK HOBETZEA (**Tanzania**)

Nazioarteko Lankidetzaren Funtsa

GISHARI-KO, NYAGIGOZI-KO, GHETA-KO ETA RUGARAMA-KO SEKTOREETAKO EKOIZPENAREN GARAPENAREN ETA ELIKADURA-SEGURTASUNAREN BALDINTZAK HOBETZEA (**Ruanda**)

Nazioarteko Lankidetzaren Funtsa

PALESTINAKO HERRITARREN GIZA GARAPENA SUSTATZEA ETA BIZI-BALDINTZAK HOBETZEA HOBEKUNTZA HAIEN GAITASUN PSIKOSOZIALAK INDARTUZ (**Palestina**)

Nazioarteko Lankidetzaren Funtsa

ERREFUXIATU SAHARAIEN ELIKADURA-EGOERA HOBETZEA ELIKADURA-SEGURTASUNEN STOCKA LAUGARRIN HILABETE BATEZ PRODUKTUAK IZANEZ INDARTZEA. II. PARTEA (**Sahara**)

Nazioarteko Lankidetzaren Funtsa



BOLUNTARIOTZA

Gurutze Gorriaren indarra bere boluntarioetan dago.

...

Gurutze Gorria boluntarioz osatutako erakunde bat gara. Boluntarioak askatasunez hartutako konpromiso baten adierazpena dira, beren borondatez hartutako konpromiso batena, eta konpromiso hori Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren Mugimenduaren idealen errespetuan eta defentsan islatzen da.

Boluntarioei esker da posible Gurutze Gorriaren jarduna, erakundearen bereizgarria dira, bere jarraitutasun- eta garapen-baliabidea eta oinarri ideologikoa. Horregatik, funtsezkoa da boluntarioak sustatzeko, hartzeko eta parte har dezatela bultzatzeko prozesu homogeenak eta eguneratuak izatea, boluntarioak behar bezala kudeatzeko beharrei erantzuteko.

Horren harira, Boluntariotza eta Parte-hartze Planaren helburua da erreferentzia-esparrua izatea Erakundeak arlo horietan gauzatzen dituen ekintzetarako. Gurutze Gorriaren Tokiko Batzar, Batzorde eta Bulegoei eta, funtsean, barne hartzen dituen boluntarioei zerbitzu emateko pentsatuta dago. Plan honek eraginkorra eta operatiboa izatea du helburu, baita malgua, parte-hartzailea, zehatza eta errealista izatea ere.

Zer egiten dute boluntarioek?

Oinarrizko eskubideen alde egiten dute lan, gizarte-zailtasunak dituzten edo zailtasun horiek izateko arriskuan dauden pertsonen bizi-baldintzak hobetzea sustatuz. Gizabanako guztiak parte aktibo eta ordezkari gisa dituen eredu parte-hartzaile baten alde egiten dugu apustu.

Hori da boluntarioek beren jardunarekin egunero-egunero lortu nahi duten helburua: gure ingurua aldatzea errespetu handiagoko gizarte zuzenago bat lortzeko, gure bizitza-proiektua behar bezala garatzeko moduko inguru bihurtu dadin.



Nola?

Balioetan, ohitura osasungarrien sustapenean eta pertsonen integrazio osoan oinarrituta heziz eta ideia hori transmitituz.

”


Beren bokazio humanitarioa garatzeko Gurutze Gorria Araba hautatu duten milaka pertsonen lana aintzatetsi nahi dugu. Haiei esker lortzen baitu erakunde honek gizabanako guztien eta, bereziki, zaurgarritasun-egoeran daudenen bizitza hobetzen laguntzeko lana behar bezala egitea.

ARABAKO BOLUNTARIOAK




37

BOLUNTARIOAREN SOSLAIA






JARDUERA		%
SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK	254	%32,73
GIZARTE ESKU-HARTZEA	245	%31,57
GAZTERIAREN GURUTZE GORRIA	115	%14,82
BOLUNTARIOTZA ETA PRESTAKUNTZA	57	%7,35
Bestelakoak	105	%13,53
Guztira	776	%100




38




BOLUNTARIOEN BILAKAERA

GUZ.	GIZONAK	EMAK.	
852	421	431	2010
998	497	501	2011
828	449	379	2012
765	398	367	2013
765	379	386	2014
836	410	426	2015

LANTALDEA 2015



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA
2015AN PLAN ETA ZERBITZU BAKOITZEKO





TOKIKO GARAPENA

Erakundea sendotzea, pertsonengandik gero eta hurbilago egoteko.

...


Pertsonentzako Arreta Esparrua (PAE) metodologia 2015ean sartu zen Gasteizko Tokiko Batzarrean, arreta pertsonarengan jartzeko helburuarekin:

- > **Hartzen dugu:** lehenengo kontaktua Gurutze Gorriarekin, "entzutea".
- > **Ezagutzen dugu:** gizabanako bakoitzaren inguruabarrak identifikatuz, nolabait haren zaugarritasun-egoera berezia zehazten dutenak, alegia.
- > **Baloratzen dugu:** informazioa analizatuz eta beharrak identifikatuz.
- > Haren **beharrei/eskaerei** erantzuten diegu: proiektuen bitartez, haren beharrei erantzuten diegu, gizabanako bakoitza bere esku-hartzearen partaide bihurtuz.
- > Jasotzen ari den jardueraren **jarraipen egokia** egiten dugu, aldizka harekin harremanetan jarriz eta haren kexak eta iradokizunak aztertuz.
- > Datuen **gardentasuna eta fidagarritasuna** zaintzen ditugu, dokumentazioa behar bezala kudeatuz.
- > Gizabanakoaren pertzepzioa identifikatzen dugu, baita bere itxaropenen erantzuna ere, bere **gogobetetasun** mailaren bitartez.

Harreran hartutako pertsonak

DATUAK:

2015eko apiriletik abendura 2.199 pertsona, horietako 1.153 emakumezkoak (% 52) eta 1.046 gizonezkoak (% 48).



2.199

Harreran hartutako
pertsonak

%48

%52

Gizonezkoak


Emakumezkoak



Gurutze Gorriaren Gasteizko Tokiko Batzarrean erantzundako eskaerak

Jasotako eskaera guztien artean (2.210), 1.712 Arabako Gurutze Gorriaren proiektu eta programen bitartez erantzun ahal izan dira, hau da, % 77 hemen bertan erantzun ahal izan dira.

”Ekintza horiek guztiak boluntarioei esker lortu dira. Gure erakundearen oinarri nagusia dira, eta planteatutako eskaerei lehen erantzuna ematen diotenak.”



2.210

Jasotako eskaerak


%23

Beste batzuk

%77

Arabako Gurutze Gorrian erantzundakoak

GURUTZE GORRIAREN GASTEIZKO TOKIKO BATZARREAN ERANTZUNDAKO ESKAERAK



% 40

Enplegu-plana

% 24

Ahokularitza juridikoa

% 11

Laguntza teknikoak

% 9

Prestazioak

% 9

Boluntariotza

% 4

Barneko lan-eskaintza

% 1

EAI

% 1

Familia erref. info

% 1

Eskola-arrakasta



BALIABIDEAK

Jarduerarako ekipamendu materialak.

....

BALIABIDE MATERIALAK 2015

Anbulantziak Oinarrizko Bizi Euskarria (OBE)	7
Babesleku gisako atoiak Larrialdiei Berehalako Erantzuna emateko Ekipoa (LBEE)	1
Koordinazio-zentro Mugikorra	1
Gizarte Esku-hartzerako Ibilgailuak	2
Gizarte Larrialdiko Unitateak Ibilgailuak	1
Hurbileko Ibilgailua	1
Garraiorako Ibilgailu Egokituak	18
Lur Orotako Ibilgailuak	3
Lur Orotakoa Mendiko Taldeak	2
Pickup Lur Orotakoa Mendiko Taldeak	1
C Mailako Itsasontzia (barnealdeko urak)	1
Laguntza-ibilgailuak	2
GUZTIRA	35

7

ANBULANTZIAK

1

BABESLEKU GISAKO ATOIAK LARRIALDIEI BEREHALAKO ERANTZUNA EMATEKO EKIPOA

1

KOORDINAZIO-ZENTRO MUGIKORRA

2

GIZARTE ESKU-HARTZERAKO IBILGAILUAK

18

GARRAIORAKO IBILGAILU EGOKITUAK

3

LUR OROTAKO IBILGAILUAK

1

C MAILAKO ITSASONTZIA (BARNEALDEKO URAK)

2

LAGUNTZA-IBILGAILUAK





KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Zorroztasuna eta informazio gardentasuna Gurutze Gorriaren jarduera gizartera hurbiltzeko.

...

Azken urteotan gizarte-zaurgarritasuna areagotu egin da eta krisiaren eragina gehien jasan duten pertsonen beharrik handitu egin dira. Hori guztia erronka handia izan da Erakundearentzat, ekiterakoan nahiz bere mezua zabaltzeko. Batetik, gizartearen pobretze-prozesuaren ondorioz, eta, bestetik, familia askok baliabideak eskuratzeari dagokionez pairatzen duten desegonkortasun-egoera dela-eta edo baliabiderik ez dutela-eta behartsu bihurtzeko arriskuaren ondorioz, herrialdean nagusi den gizarte-testuingurura egokitu behar izan gara, Erakundea berriro ere gehien behar dutenen zerbitzura jartzeko.

Komunikazioaren ikuspuntutik, egoera honek aukera eman du Gurutze Gorria iritzi publikoaren aurrean Araban pobrezia arloko Erakunde erreferente gisa aurkezteko. Zalantzarik gabe, Erakundea gero eta gertuago dago

personengandik, eta 2015ean frogatu du solidaritate- eta konpromiso-mezua publiko guztiengana iristeko egokitzen jakin duela.

Lan horrekin, Erakundeak komunikabideetan eta iritzi-sortzaileen artean bere eragina esponentzialki areagotzea lortu du (baita eraginaren kalitatea handiagotzea ere); alderdi honen inguruko datuek gora egin dute urte hauetan, eta 2015ean indize historikoak lortu dira, albiste kopuruari eta ikus-entzuleei dagokienez.

Bada, Arabako Gurutze Gorriak 360 albiste-erreferentzia baino gehiago izan ditu komunikabideetan, 2014an (334) baino gehiago, alegia, eta horrela, aurrerapen jarraitua lortu da Erakundearen oihartzunean gaur egun arte.





Sare sozialak

Sare sozialak Gurutze Gorriarentzat nahitaezko komunikazio-tresna bihurtu dira. Sare sozialetan parte hartzeak abantaila eta onura handiak dakartza. Lankidetzaren eta edukiak elkarbanatzearen bidezko parte-hartze kolektiboa komunean dute.

Zalantzarik gabe, gizarte-hedabideek pertsonen arteko komunikazioa aldatu dute, baita marken eta pertsonen artekoa ere. Gizarte-sareak tresna erabakigarria dira Gurutze Gorriak munduaren inguruan duen ikuspegia eta bere printzipioak eta proiektuak komunikatzeko; bere publikoarekin hitz egiteko eta jendeari zer interesatzen zaion jakiteko; eta sentsibilizatzeko eta, ondorioz, kontzientziak harrotzen saiatzeko.

Gurutze Gorria Arabak gizarte-sareetan duen presentzia bi plataforma hauetan dituen kontuen bitartez gauzatzen da batik bat: Twitter (@CruzRojaAlava) eta Facebook (facebook.com/CruzRojaAlava).

2015ean zehar Gurutze Gorria Arabak gero eta oihartzun handiagoa lortu du, baita jarraitzaile gehiago ere, Klout indizeak erakusten duen bezala. Adierazle horrek jarraitzaile kopuruaren, elkarbanatutako edukiaren eta biralitatearen arteko harremana 0 eta 100 arteko baremo batekin islatzen du. Gurutze Gorria Arabarena 54koa da.

Jarraitzaile kopuruaren bilakaerari dagokionez, Twitter-en 2.215ekin bukatu da urtea, hau da, 2014an baino % 53 gehiagorekin, eta Facebook-en, berriz, 874rekin, hots, aurreko urtean baino % 36 gehiagorekin.



www.facebook.com/CruzRojaAlava



[@CruzRojaAlava](https://twitter.com/CruzRojaAlava)



FUNTS-BILKETA

Elkartasuna zabaltzen laguntzen duten 9.691 bazkide Araban.

....

Duela 150 urtetik baino gehiagotik, milioika pertsonak Gurutze Gorriaren bereizgarria beren nortasun-bereizgarri gisa izan dute eta dute, eta interes hori ekintza bihurtu dute, hau da, Erakundearekin batera egin dute lan funtsak biltzeko jardueraren batean lagunduz.

Funts-bilketa gero eta garrantzitsuagoa da Erakundearentzat; izan ere, funtsik gabe ezin izango litzateke behar bezala babestu boluntarioen ahalegin eskuzabala, eta ezin izango lirakeke gauzatu egoerarik zaugarrienean dauden pertsonen erantzuteko epe ertain eta luzerako proiektuak.

Gainera, komunikazioa hobetzen saiatu gara, gure eguneroko lanaren alderdi erabakigarri gisa, bazkideen eta gauzatzen diren proiektuen arteko loturaren inguruko mezuekin.

Gurutze Gorria Arabaren diru-sarreraren % 46 baino gehiago jatorri pribatukoak dira, hau da, 1.505.162 euro baino gehiago, eta bazkideek zenbateko horren 1.126.263 euro baino gehiago eman dituzte, 222.420 euro baino gehiago saldu dira Urrezko Zozketan, eta nazioarteko nahiz estatu-mailako larrialdietarako diru-bilketaren profila mantendu ahal izan da.

Bazkideak

Bazkideen ekarpenei esker, Erakundea independenteagoa izan da gizartearentzat beharrezkoenak diren proiektuak gauzatzeko. 2015ean, Gurutze Gorria Arabak 787 bazkide gehiago lortu ditu, hau da, 9.691 pertsonak eta enpresak lortu dute beren ekarpenen bitartez Erakundeak independentzia hori izan dezala.

Emaileak

Emaileen ekarpenei esker, zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboek arreta eskaini ahal izan diegu, arreta berezia eskainiz krisiaren ondorioz babesgabetasun handiagoa jasaten duten pertsonen, hala nola familia desegituratuak seme-alabei eta bakarrik bizi diren eta baliabiderik ez duten adineko pertsonen. "Orain inoiz baino +" deiarekin, krisi ekonomikoak gizartean duen eragina arintzen saiatzen gara.

Emaileen ekarpenak gardentasun osoarekin kudeatzea da Gurutze Gorriaren oinarrietako bat. Horregatik, urtero-urtero txosten batean jasotzen da Erakundeak nola kudeatu dituen ekarpen horiek. Txosten horretan, lekukotzen bitartez azaltzen da hasitako proiektu bakoitzean egin den lan guztia.


Enpresen laguntza

Enpresen laguntza eta Gurutze Gorria Arabaren eta enpresen arteko aliantzak estrategikoak dira, eta gero eta zeharkotasun handiagoarekin kudeatzen dira. Enpresak erabakigarriak dira enplegu-programek emaitza onak lor ditzaten, kanpainak haien hartzailen artean ezagutzera emateko eta funtsak biltzeko, prestakuntza-edukietako formakuntzarako eta proiektuak zuzenean finantzatzeko. Labur esanda, **enpresen lankidetzaren eta gizarte-erantzukizuneko politikak garatzen laguntzea nahitaezkoak dira gizarte-kohesioa eta garapen iraunkorra bermatzeko.**


BAZKIDEAK

BAZKIDE KOP.

5.341	2008
5.940	2009
6.228	2010
6.632	2011
7.165	2012
8.258	2013
8.904	2014
9.691	2015



BAZKIDEAK 2015



% 43,3

Gizonak

4.194 gizonak

% 55,4

Emakumeak

5.366 emakumeak

% 1,3

Enpresak

131 enpresak

GUZTIRA 9.691 gizonak, emakumeak eta enpresak




KUDEAKETA EKONOMIKOA

Gurutze Gorria Araba zenbakitan.


....

GASTUAK JARDUERAREN ARABERA	%
Gizarte esku-hartzea	%36,78
Lana	%19,08
Osasuna, sorospenak eta larrialdiak	%10,75
Funts-bilketa eta administrazioa	%8,69
Boluntarioak eta tokiko garapena	%8,66
Gazteen Gurutze Gorria	%6,00
Prestakuntza	%5,17
Nazioarteko lankidetzak	%2,30
Irrati-sarea eta komunikazioa	%1,50
Ingurumena	%1,07



FINANTZAKETA ITURRIAK	%
ERAKUNDEAREN BERAREN FINANTZAKETA-ITURRIAK	%46,16
Bazkide diren pertsonak eta enpresak	%34,54
Urrezko Zozketa eta loteriak	%7,04
Bestelako diru-sarrerak	%4,59
ZERBITZUAK EMATEA ETA DIRU-LAGUNTZAK	%53,84

GUZTIRA **3.260.751 euros**



% 34,54

Bazkide diren pertsonak
eta enpresak

% 7,04

Urrezko Zozketa eta loteriak

% 4,59

Bestelako diru-sarrerak

% 53,84

Zerbitzuak ematea
eta diru-laguntzak



KALITATE ZIURTAGIRIAK

AENOR KALITATE-ZIURTAGIRIA _____

- > GKE Benchmarking kudeaketa-gardentasunaren ziurtagiria.
- > AENOR ISO 9001-2008 kalitate-ziurtagiria.
- > Etxez etxeko telelaguntzako eta telelaguntza mugikorreko zerbitzuaren AENOR ziurtagiria.
- > Diru-laguntzen eta dohaintzen kudeaketaren AENOR ziurtagiria.



OSO ONDO ZIURTAGIRIA _____

- > Uraren erabileari lotutako jardunbide egokiko centro efizientearen OSO ONDO ziurtagiria.



BERDINTASUNA _____

- > Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren laguntzen duen erakundea.

EZARRITAKO BESTE KALITATE SISTEMAK _____

Ezarritako barneko beste kalitate sistema batzuk:

- > Boluntariotzaren kudeaketa.
- > Interlabora Sarea, etorkinentzako enplegua.





Gurutze Gorria

Pertsonengandik gero eta hurbilago

Gizatasuna

Guda-lekuetan zauritu guztiei, inor baztertu gabe, laguntza ematearen kezka sorrarazi duen Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren nazioarteko mugimenduak ahaleginak egiten ditu, bai nazioarteko bere alderdian eta bai nazio barrukoan, gizakien sufrimendua aurreikusten eta arintzen, edozein eratako delarik ere sufrimendu horren eragilea. Bizitza eta osasuna babes-tera jotzen du eta gizakia errespetatzera. Elkar ulertzea, laguntasuna, lankidetzeta eta herrien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.

Inpartzialtasuna

Naziotasun, erraza,erlijio, egoera sozial edo iritzi politikoaren arabera bereizketarik ez du egiten. Pertsonen, duten sufrimenduaren arabera, laguntza ematera dedikatzen da, premiak estaliz eta larrienei lehentasuna emanez.

Neutraltasuna

Denen konfidantza izateko, Mugimenduak ez du gatazketan parte hartzen eta politika, arraza, erlijioa edo ideologia tarteko direla sortzen diren gorabeheretan ez da inola ere sartzen.

Independentzia

Mugimendu independentea da. Agintariei laguntza ematen die beren egiteko humanitarioetan, herrialde bakoitzeko legeriara egokituta. Nazio Erakundeek, halere, beren autonomia izan behar dute, betiere Mugimenduaren printzipioetan oinarrituta, beren ekimena gauzatu ahal izateko

Boluntariotza

Boluntarioz osatutako sorospen-erakundea da, interes gabeko jarduneko

Batasuna

Herrialde bakoitzean Gurutze Gorriko edo Illagierdi Gorriko Elkarte bakarra egon daiteke, denek irekia izan behar duena eta lurralde osora zabaltzeko behar duena bere jardun humanitarioa

Unibertsaltasuna

Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da eta bere baitako erakunde guztiek berak eta elkarri laguntzeko betebeharra dute.



Gurutze Gorria

www.cuzroja.es 902 22 22 92

Gizatasuna Inpartzialtasuna Neutraltasuna Independentzia Boluntariotza Batasuna Unibertsaltasuna